
Eguneraketa
2015/03/30
Actualización

§C2

**NORMA FORAL 9/2012,
DE 5 DE DICIEMBRE, DE
DEMARCACIONES
TERRITORIALES DE
BIZKAIA**

**BIZKAIKO LURRALDE
MUGAPEEI BURUZKO
ABENDUAREN 5EKO
9/2012 FORU ARAUA**



NORMA FORAL 9/2012, DE 5 DE DICIEMBRE, DE DEMARCACIONES TERRITORIALES DE BIZKAIA

(BOB nº 241, de 18 de diciembre de 2012)

PREAMBULO

I

En materia de demarcaciones territoriales, el Territorio Histórico de Bizkaia se ha venido dotando de la normativa más adecuada, en función de cada momento histórico y de las necesidades que en ese tiempo concurrían. Todo ello al amparo de la competencia exclusiva que le otorga el artículo 7 de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

Con esa finalidad se promulgó la Norma Foral 8/1993, de 7 de julio, de Términos Municipales de Bizkaia, cuya regulación supuso un gran avance normativo sirviendo adecuadamente como medio para atender a las demandas que, en ese momento, existían, racionalizando los procedimientos con el fin de optimizar la prestación de los diferentes servicios públicos y creando, además, el instrumento y cauce apropiado para posibilitar la corrección del grave problema de discontinuidad entre términos municipales que soportaba el Territorio Histórico de Bizkaia.

El tiempo transcurrido ha permitido superar esa problemática, pero también ha supuesto la aparición de una nueva casuística e incluso la mayor concienciación en aspectos concernientes a la mejor utilización de los medios disponibles, por desgracia cada vez más escasos. Por ello procedimientos contemplados en la anterior normativa han sido deliberadamente suprimidos y ello con la única finalidad de impedir una antieconómica disgregación territorial que, ya no a largo plazo sino en el presente, comportan unos costes cuya asunción es absolutamente inviable. La presente Norma Foral, partiendo del estatus quo establecido, pretende determinar el modelo territorial futuro, adaptándose a la realidad económica y social.

La Constitución, en su artículo 137, proclama la autonomía de los municipios para la gestión de sus respectivos intereses. La intangibilidad de esta autonomía aparece garantizada en el artículo 140 de la Carta Magna. La Norma Foral se apoya sobre ese pilar básico, la autonomía municipal debe ser considerada como un principio inalienable, en el que se fundamenta el concepto de la voluntariedad, materializado en la competencia exclusiva del municipio para la iniciación de todos los procedimientos regulados en la misma.

BIZKAIKO LURRALDE MUGAPEEI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 9/2012 FORU ARAUA

(241 zenbakidun BEO, 2012.eko abenduaren 18koa)

HITZAURREA

I

Lurralde mugapeen arloan, Bizkaiko Lurralde Historikoak araudi egokia hartu izan du dagokion une historikoaren arabera eta une horretako beharren arabera. Betiere Euskal Autonomi Erkidego osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua ematen dion bakarreko eskumenaren babesean.

Helburu horrekin, Bizkaiko Udal Mugarteei buruzko uztailaren 7ko 8/1993 Foru Araua aldarrikatu zen. Araudi hori aurrerapen handia izan zen; izan ere, baliabide egokia zen orduko eskakizunei erantzuteko eta prozedurak arrazionalizatzeko zerbitzu publikoak hobeto eman zitezten, eta, horrez gainera, tresna eta bidea zen Bizkaiko Lurralde Historikoak udalerrri batzuen artean zuen jarraitutasunik ezak zekarren arazo larria konpontzeko.

Denbora igarota, arazo hori konpondu egin da; hala ere, beste egoera batzuk sortu dira, eta kontzientziario handiagoa dago eskura dauden baliabideak —zoritzarrez, gero eta gutxiago direnak— hobeto erabiltzeko. Hori dela eta, aurreko arauan zeuden prozedura batzuk berariaz ezabatu dira, ekonomikoki kaltegarria den lurralde-disgregazioa eragozteko; izan ere, epe luzera jo gabe, orain ere badakartza bideragarriak ez diren kostu batzuk. Ezarritako egoera oinarri, foru arau honek etorkizuneko lurralde-eredua finkatu nahi du, errealitate ekonomiko eta sozialera egokituta.

Konstituzioak, 137. artikuluan, udalerriek beren interesak kudeatzeko duten autonomia aldarrikatzen du. Karta Magnaren 140. artikuluan bermatzen da autonomia horren ukiezintasuna. Printzipio hori da foru arauaren funtsezko oinarria: udalerrien autonomia printzipio alienaezina da; printzipio horretan oinarritzen da borondatezkotasunaren kontzeptua, foru arauan araututako prozedura guztiak hasteko udalerriak duen bakarreko eskumenean gauzatzen dena.

A diferencia de lo establecido en la anterior normativa, en la que se consideraba una pluralidad de agentes promotores de los procedimientos, provocando en algunos casos una cierta indeterminación procedimental, lo que esta disposición establece es la figura de una única administración con competencias para instar la sustanciación de todos y cada uno de los procedimientos que en ella se regulan, la administración municipal.

El cambio es sustancial, no sólo por el aspecto procedimental que la nueva sistemática comporta, sino por la propia facultad de iniciar esos procedimientos. Son los ayuntamientos soberanos en todos aquellos asuntos que, al amparo de la presente normativa, son objeto de regulación. De tal manera que sin la expresa y previa acción de sus órganos de gobierno no es posible ningún tipo de actuación.

Sin perjuicio de aquellos aspectos que, con motivo del análisis de los Títulos en los que esta Norma se subdivide, serán objeto de su oportuna revisión, es preciso remarcar como aspecto destacable el exhaustivo grado de detalle que en todos los procedimientos normados se contiene. Como ya se ha indicado, no existía vacío normativo en esta materia, muy al contrario, la Norma Foral 8/1993 se ha venido aplicando directamente, sin la existencia de reglamento general dictado para su desarrollo.

Bajo esta premisa se ha considerado conveniente mantener al menos el rigor y la extensión de la normativa objeto de derogación. En este punto no sólo se ha cumplido con esta exigencia sino que se ha ampliado considerablemente el detalle regulatorio de todos los procedimientos.

II

La Norma Foral se estructura en seis títulos, contiene 83 artículos, seis disposiciones adicionales, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales.

En el Título I se contienen las disposiciones generales sobre la materia, dividiendo, a su vez, su contenido en dos capítulos. En el primero se concreta el objeto de la norma, estableciendo las materias cuya regulación comprende y que serán desarrolladas en los títulos posteriores, así como la expresa indicación de la facultad municipal en cuanto a la intervención en los asuntos de su competencia. El Capítulo II se refiere exclusivamente a la determinación del concepto de término municipal.

III

El Título II, que recoge las disposiciones referentes a la demarcación y deslinde de los términos municipales, se subdivide en dos capítulos.

En el primero de ellos se regula el concepto de demarcación fijando la situación actual como punto de partida para cualquier posible variación que, al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral, pudiera producirse. También se define el concepto de línea límite como la divisoria entre municipios.

Aurreko arauan, prozedurak sustatzeko hainbat eragile hartzen ziren kontuan, eta, ondorioz, batzuetan zehaztasun eza gertatzen zen prozeduretan. Orain, berriz, ezartzen da administrazio bakarrak dituela foru arauan arautzen diren prozedura guztiak bideratzeko eskumenak; administrazio hori udal administrazioa da.

Aldaketa funtsezkoa da, bai sistematika berriak dakarren prozedurari dagokionez bai prozedurak abiarazteko ahalmenari dagokionez. Izan ere, udalerrak subiranoak dira araudi honen babesean arautzen diren gai guztietan. Ondorioz, haien gobernu-organoen berariazko egintza ezinbestekoa da edozein jarduera egin ahal izateko.

Arau honetako tituluen azterketaren ondorioz berrikusi behar diren alderdiak gorabehera, nabarmentzekoa da araututako prozedura guztien zehaztasun-maila handia. Gorago adierazi denez, arlo honetan ez zegoen arau-hutsunerik; izan ere, 8/1993 Foru Araua aplikatu izan da, arau hori garatzeko erregelamendu orokorrik gabe ere.

Premisa hori kontuan hartuta, pentsatu da komeni dela indargabetu behar den aurreko arauaren zehaztasunari eta luzerari eustea. Horri dagokionez, eskakizun hori gainditu egin da; izan ere, arau honetan nabarmen handiagoa da prozedurak arautzeko erabilitako zehaztasuna.

II

Honela dago egituratuta foru araua: sei titulu, 83 artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. tituluan, arloko xedapen orokorrak jasotzen dira; bi kapitulutan banatzen da titulu hau. Lehenengoan, arauaren xedea zehazten da, eta ezartzen dira arauan bildu eta ondorengo tituluetan garatuko diren arloak. Horrez gainera, berriaz adierazten du udalak bere eskumeneko gaietan esku hartzeko duen ahalmena. II. kapituluak, berriz, udalerraren kontzeptua zehazten du.

III

II. tituluan, udalerrak mugatzeari eta zedarritzeari buruzko xedapenak jasotzen dira; bi kapitulutan banatzen da tituluak.

Lehenengoan, arautzen da zer den udalerrak mugatzea, eta gaur egungo egoera abiapuntutzat hartzen da foru arau honen babesean egiten den edozein aldaketarako. Horrez gainera, definitzen da zer den muga-lerroa: udalerrak bereizten dituen lerroa.

El Capítulo II se refiere al deslinde de términos municipales y se divide en dos secciones, la primera de ellas contiene el concepto de esta figura y recoge expresamente las facultades que, con carácter general, ostentan los municipios.

En su Sección Segunda se contempla pormenorizadamente el procedimiento que, bajo el ya citado principio de voluntariedad, se iniciará a instancia del ayuntamiento o ayuntamientos interesados. Se ha considerado oportuno recoger con detalle, todas y cada una de las actuaciones que, en cada caso han de realizarse, los requisitos que han de cumplimentarse, así como los efectos por una u otra causa se deriven. Como aspectos más significativos cabe hacer hincapié en su carácter garantista que se manifiesta no sólo por la iniciativa y propuesta municipal sino también por el trámite de audiencia, previo a la propuesta de resolución, y por el dictamen de Comisión Jurídica Asesora, garante de la adecuada aplicación de la normativa vigente. Finaliza este procedimiento mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia.

IV

En el Título III se recogen separadamente tres supuestos. El primero se refiere a las competencias que ostenta el departameto competente de la Diputación Foral de Bizkaia en materia de inspección y comprobación de líneas límite. En el segundo se residen en los ayuntamientos las facultades de conservación, mantenimiento y vigilancia de los mojones.

Por último, en el tercero, se instaura un nuevo procedimiento, el de reconocimiento de límites, que posibilita la constatación sobre el terreno de los límites entre dos o más municipios, siempre que éstos se encuentren claramente delimitados y no existan discrepancias sobre su ubicación, evitando, en estos supuestos, la utilización del procedimiento de deslinde, con una significativa reducción de trámites.

V

El Título IV regula una situación cuya trascendencia sobre el municipio adquiere especial relevancia, el de la alteración de su propio término municipal. Estructurado en cinco capítulos, en el primero de ellos se establecen los cuatro supuestos de alteración:

- Segregación de parte del territorio de uno o varios municipios para agregarse a otro u otros limítrofes.
- Fusión de dos o más municipios limítrofes para constituir uno nuevo.
- Incorporación o agregación de uno o varios municipios a otro u otros limítrofes sin constituir uno nuevo.
- Aumento o disminución de su cabida debido a dinámicas de la naturaleza o por su ganancia al mar.

II. kapitulua, udalerriak zedarritzeari buruzkoa da, eta bi ataletan banatzen da. Lehenengoan, haren kontzeptua azaltzen da, eta, berariaz jasotzen dira udalerriek oro har dituzten eskumenak.

Bigarren atalean, udalerrien mugak zedarritzeko prozedura azaltzen da zehatz-mehatz; borondatezkotasun-printzipioa oinarri izanda, udal interesdunek eskatuta hasiko da prozedura. Egokitzat jo da alderdi hauek zehaztasunez jasotzea: kasu bakoitzean egin behar diren jarduera guztiak, bete behar diren baldintzak, eta arrazoi bat edo beste bat dela-eta eragindako ondorioak. Alderdi garrantzitsu gisa, nabarmendu behar da prozeduraren izaera bermatzailea. Izaera hori garbi geratzen da udal ekimen eta proposamenagatik, ebazpen-proposamenaren aurreko entzunaldiaren izapideagatik eta Lege Batzorde Aholkulariaren irizpenagatik, batzorde horrek bermatzen baitu indarreko araudia egoki aplikatzen dela. Prozedura Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez amaitzen da.

IV

III. tituluari, hiru alderdi azaltzen dira. Lehenengoan, azaltzen da nolako eskumenak dituen Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak muga-lerroak aztertu eta ikuskatzeko. Bigarrenean, udalei esleitzen zaizkie mugarriak kontserbatu, mantendu eta zaintzeko eskumenak.

Azkenik, hirugarrenean, beste prozedura bat ezartzen da: mugak egiaztatzea. Prozedura horrek aukera ematen du bi udalerriren edo gehiagoren arteko mugak lurlean bertan egiaztatzeko, betiere mugak garbi badaude eta ez badago desadostasunik haien kokapena dela-eta. Kasu horretan, ez da muga zedarritzeko prozedura erabili behar; beraz, izapideak nabarmen murrizten dira.

V

IV. titulua udalerria aldatzeari buruzkoa da; beraz, udalerrian eragin handia duen egoera bati buruzkoa. Bost kapitulutuan egituratzen da; lehenengoan, udalerria aldatzeko lau kasuak ezartzen dira:

- Udalerrri baten edo batzuen lurralde zati bat banantzea, udalerrri mugakide bati edo batzuei eransteke.
- Bi udalerrri mugakidek edo gehiagok bat egitea, beste udalerrri bat eratzeko.
- Udalerrri bat edo batzuk beste udalerrri mugakide bati edo batzuei gehitzea edo eranstea, beste udalerririk eratu gabe.
- Udalerrriaren eremua handitzea edo txikitzea, naturaren dinamiken eraginez edo itsasoari lurra irabaziz.

En el caso del último de los supuestos citados se remite al procedimiento de deslinde para su tramitación. Además, se establecen las causas que pueden dar lugar a la alteración, siempre bajo el principio irrenunciable de la suficiencia económica que debe concurrir en todos los municipios afectados.

El Capítulo II establece, para los tres primeros supuestos de alteración, el concepto y los efectos que cada uno de ellos produce.

El procedimiento regulado en el Capítulo III, reproduce los mismos principios que anteriormente se han expresado. Siendo, por tanto, la iniciativa competencia municipal, se articula una tramitación que, discuriendo con el mismo detalle y garantías que las establecidas para el procedimiento de deslinde, finaliza mediante acuerdo de las Juntas Generales de Bizkaia.

El Capítulo IV establece el régimen transitorio de los miembros de las corporaciones locales que han sido afectadas por una alteración de términos, determinándose, para cada uno de los supuestos, la situación de los respectivos concejales y, en su caso los trámites para la elección de la comisión gestora.

Por último, en el Capítulo V se recoge otro régimen transitorio, en este caso el correspondiente a los expedientes en tramitación que obren en los distintos ayuntamientos, determinándose, para cada una de las situaciones, las normativas que deban ser de aplicación.

VI

El Título V se refiere en exclusiva a las entidades locales menores. Estructurado en tres capítulos, el primero comprende las disposiciones generales, estableciendo el concepto y las competencias de esas entidades locales menores, así como las potestades públicas que éstas ostentan.

En el Capítulo II se contemplan los órganos de gobierno y administración, que se concretan en el alcalde pedáneo y la junta vecinal, determinándose las competencias que atribuidas a cada uno de ellos.

Finalmente, en el Capítulo III se regula el procedimiento para la supresión de las entidades locales, siempre en el caso de que el ayuntamiento así lo decidiera, puesto que a él compete la iniciativa, bien de oficio o a instancia de la propia entidad local menor. Procedimiento éste que inspirado en los mismos principios anteriormente expresados finaliza mediante acuerdo de las Juntas Generales de Bizkaia.

VII

En el Título VI se engloban aquellas cuestiones definitorias de la identidad municipal, como son el nombre, el escudo, la bandera y la capitalidad. Compuesto por dos capítulos, en el primero de ellos se regulan las disposiciones generales que afectan a cada situación.

Azken kasuan, udalerrien mugak zedarrizteko prozedurara jotzen da prozedura izapidetzeko. Bestalde, aldatzeko arrazoiak ere ezartzen dira, betiere aintzat hartuta ukitutako udalerrri guztiek —ezinbestez— behar beste baliabide ekonomiko izan behar dutela.

II. kapitulan, udalerrriak aldatzeko lehen hiru kasuen kontzeptua ezartzen du, eta adierazten du ze nolako ondorioak dituen kasuetako bakoitzak.

III. kapitulan araututako prozeduran, goian adierazitako printzipio berak azaltzen dira. Beraz, ekimena udalerrien eskumena da; ondoren, izapideen antolamenduaren berri ematen da, udalerrien mugak zedarrizteko prozedurarako ezarritako zehaztasun eta berme berekin. Azkenik, Bizkaiko Batzar Nagusien erabaki bidez amaitzen da prozedura.

IV. kapitulan, udalerrriak aldatzearen ondorioz eragindako toki-korporazioetako kideen araubide iragankorra ezartzen da, eta, horrez gainera, zehazten da kasu bakoitzean zein egoeratan geratzen diren zinegotziak, eta, hala dagokionean, zeintzuk diren batzorde kudeatzailea aukeratzeko izapideak.

Azkenik, V. kapitulan, beste araubide iragankor bat jasotzen da; kasu honetan, udaletan izapidetzen ari diren espedienteek buruzkoa da, eta ezartzen da zein araudi aplikatu behar den egoera bakoitzean.

VI

V. titulua toki-erakunde txikiei buruzkoa da osorik. Hiru kapitulutan egituratzen da. Lehenengoan, xedapen orokorrak jasotzen dira; toki-erakunde txikien kontzeptua eta eskumenak ezartzen dira, eta adierazten da zein ahal publiko dituzten.

II. kapitulan, gobernu- eta administrazio-organoak jasotzen dira: auzo-alkatea eta auzo-batzordea, eta bakoitzaren eskumenak zehazten dira.

Azkenik, III. kapitulan, toki-erakundeak ezabatzeko prozedura arautzen da, betiere udalak hala erabakitzen badu; izan ere, udalari dagokio ekimena, ofizioz edo toki-erakunde txikiak eskatuta. Prozedura hau ere goian adierazitako printzipioetan oinarritzen da, eta Bizkaiko Batzar Nagusien erabaki bidez amaitzen da.

VII

VI. tituluaren udalerrria identifikatzen duten alderdiak biltzen dira: izena, armarrria, bandera eta udalburua. Bi kapitulu bi titulu honek; lehenengoan, egoera bakoitzari eragiten dioten xedapen orokorrak arautzen dira.

En el segundo se detalla el procedimiento, común para todos los caso y acorde con los principios que en el resto de los procedimientos de esta norma concurren, iniciándose por el ayuntamiento y resolviéndose, en este caso, por acuerdo de las Junta Generales.

TÍTULO I FINES DE LA NORMA FORAL

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objeto

1.- La presente Norma Foral tiene como objeto la regulación de las cuestiones que pudieran suscitarse en relación con el territorio de los municipios de Bizkaia, posibilitando la adaptación de la dimensión territorial de los mismos a las exigencias de la racionalidad, eficacia y eficiencia en la prestación de los servicios públicos de carácter local.

En consecuencia, se regulará:

- 1.- El deslinde de límites territoriales municipales.
- 2.- El reconocimiento de límites territoriales municipales
- 3.- La alteración de términos municipales
- 4.- El nombre, escudo, bandera, títulos distintivos y capitalidad de las Entidades Locales de Bizkaia.

2.- Asimismo, se establece el régimen de las Entidades Locales Menores de Bizkaia que se conciben como personas jurídico-públicas, subordinadas al respectivo municipio, y que atienden al ejercicio de sus competencias y a la prestación de los servicios públicos que legalmente les corresponda.

Artículo 2.- Intervención municipal

Para la efectividad de la autonomía legalmente garantizada a las entidades municipales, los órganos forales del Territorio Histórico de Bizkaia aseguran a los municipios su derecho a intervenir en cuantos asuntos relacionados con la presente Norma Foral, afecten al círculo de intereses de los mismos, atribuyéndoles las competencias que procedan en atención a las características de la actividad pública de que se trate y a su capacidad de gestión.

CAPÍTULO II EL TÉRMINO MUNICIPAL

Artículo 3.- Concepto

- 1.- Se denomina término municipal al territorio en el que el ayuntamiento ejerce sus competencias.
- 2.- El término municipal deberá estar formado inexcusablemente por territorios continuos.

Bigarrenenean, berriz, prozedura zehazten da: kasu guztietarako bera da; arau honetako gainerako prozedurekin bat dator; udalak abiarazten du, eta, kasu honetan, Batzar Nagusien erabaki bidez ebazten da.

I. TITULUA FORU ARAUAREN HELBURUAK

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Honako hau da foru arau honen xedea: Bizkaiko udalerrien lurraldea dela-eta sor daitezkeen arazoak arautzea; era horretara, aukera egongo da udalerrien lurralde-dimentsioa toki-zerbitzu publikoak emateko arrazionaltasunera, efikaziara eta eraginkortasunera egokitzeke.

Ondorioz, alderdi hauek arautuko dira:

- 1.- Udalerrien mugak zedarritzea.
- 2.- Udalerrien lurralde-mugak ezagutzea.
- 3.- Udalerriak aldatzea.
- 4.- Bizkaiko toki-erakundeen izena, armarrria, bandera, titulu bereizgarriak eta udalburua.

2.- Bestalde, Bizkaiko toki-erakunde txikien araubidea ezartzen da. Toki-erakunde txikiak pertsona juridiko-publikoak batzuk dira; dagokien udalaren mende daude; beren eskumenak erabiltzen dituzte, eta legez dagozkien zerbitzu publikoak ematen dituzte.

2. artikulua.- Udalen esku-hartzea

Legeak udal erakundeei bermatutako autonomia eraginkorra izan dadin, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoek udalei eskubidea bermatuko diete foru arau honekin zerikusia duten eta udalon interesetan eragina duten gai guztietan esku hartzeko. Horretarako, behar dituzten eskumenak esleituko dizkiete udalei, kasuan kasuko jarduera publikoaren ezaugarriak eta udalen kudeaketa-ahalmena kontuan hartuta.

II. KAPITULUA UDALERRIA

3. artikulua.- Kontzeptua

- 1.- Hau da udalerrria: udalak bere eskumenak erabiltzen dituen lurraldea.
- 2.- Ezinbestekoa izango da udalerrria etenik gabeko lurraldez osatuta egotea.

TÍTULO II DEMARCACIÓN Y DESLINDE DE LOS TÉRMINOS MUNICIPALES

CAPÍTULO I DEMARCACIÓN DE TÉRMINOS MUNICIPALES

Artículo 4.- Demarcación

1.- La demarcación de los términos municipales de Bizkaia se corresponde con su delimitación vigente a la entrada en vigor de esta Norma Foral, todo ello sin perjuicio de las variaciones futuras que resultaren procedentes con arreglo a la misma o a otras disposiciones que la desarrollen.

2.- En cualquier caso, los expedientes que se instruyan en relación a la delimitación superficial de los términos municipales habrán de ser resueltos de manera que los mismos constituyan un soporte territorial adecuado para la prestación de los servicios públicos locales; para la preservación de los valores históricos y tradicionales existentes y que habrán de ser protegidos; y para el desarrollo de la colectividad humana en los mismos asentada.

Artículo 5.- Concepto de línea límite y línea límite provisional.

A los efectos de la presente Norma Foral, se entiende por:

1.- Línea límite jurisdiccional o línea límite territorial, la línea divisoria que tiene carácter definitivo entre municipios.

2.- Línea límite provisional, la línea divisoria entre municipios que no esté determinada de un modo definitivo con arreglo a la normativa aplicable.

Artículo 6.- Líneas provisionales

La resolución de las situaciones de provisionalidad o determinación definitiva de los tramos de líneas provisionales, se realizará a través del procedimiento regulado en el Capítulo II del presente Título.

CAPÍTULO II DESLINDE DE TÉRMINOS MUNICIPALES

SECCIÓN 1ª -DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 7.- Concepto

1.- El deslinde constituye un procedimiento administrativo destinado a constatar los límites de los términos municipales así como a proporcionar la expresión física adecuada de los mismos, siempre que

II. TITULUA UDALERRIAK MUGATZEA ETA ZEDARRITZEA

I. KAPITULUA UDALERRIAK MUGATZEA

4. artikulua.- Udalerriak mugatzea

1.- Bizkaiko udalerrien mugak bat datoz foru arau hau indarrean jartzen denean daudenean; hala ere, gerora aldaketak gerta litezke, arauaren edo araua garatzen duten beste xedapen batzuen ondorioz.

2.- Edonola ere, udalerrien azalera dela-eta instruitzen diren espedienteak ebazterakoan kontuan hartuko da espediente horiek lurralde-euskarria izan behar dutela toki-zerbitzu publikoak egoki emateko, babestu beharreko balio historiko eta tradizionalak eusteko, eta udalerrian bizi diren pertsonak garatu ahal izateko.

5. artikulua.- Muga-lerroa eta behin-behineko muga-lerroa.

Kontzeptu hauek honela definitzen dira, foru arau honen ondorioetarako:

1.- Udalerriak banatzen dituen behin betiko lerroa da muga-lerro jurisdikzionala edo lurraldeko muga-lerroa.

2.- Behin-behineko muga-lerroa, berriz, udalerriak banatzen dituen lerroa da; baina, kasu honetan, lerro hori ez dago behin betiko zehaztuta arloan aplikatzekoa den araudiaren arabera.

6. artikulua.- Behin-behineko muga-lerroak

Behin-behineko muga-lerroen tarteak behin-behinekoak diren edo behin betikoak diren ebazteko, titulu honetako II. kapituluan araututako prozedurari jarraituko zaio.

II. KAPITULUA UDALERRIEN MUGAK ZEDARRITZEA

1. ATALA.- XEDAPEN OROKORRAK

7. artikulua.- Kontzeptua

1.- Mugak zedarritzea administrazio-prozedura bat da; udalerrien mugak egiaztatze eta udalerrien mugen adierazpen fisiko egokia emateko erabiltzen da, muga horiek zehatzak ez direnean edo haien kokapenari

éstos sean imprecisos o sea necesario resolver discrepancias sobre su ubicación.

2.- Las operaciones de deslinde incluyen la precisión de las líneas límites sobre el terreno, su materialización, la gestión de las actas y reseñas y cuantos actos administrativos sean necesarios para su formalización.

Artículo 8.- Derecho al deslinde.

1.- Los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia ostentan las facultades relacionadas con el deslinde y el amojonamiento de sus respectivos términos municipales en la forma y condiciones previstas en esta Norma Foral y disposiciones complementarias de la misma.

2.- La acción de deslinde entre municipios colindantes es imprescriptible y deberá actuarse con citación de los ayuntamientos afectados así como del departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia.

SECCIÓN 2ª.- PROCEDIMIENTO

Artículo 9.- Iniciación.

El procedimiento de deslinde se iniciará por acuerdo del Pleno del ayuntamiento interesado adoptado por mayoría absoluta de los concejales, en la que se expresará el motivo y objeto del deslinde y la relación de municipios afectados. En el mismo acuerdo se designará una comisión compuesta por el Alcalde o Alcaldesa o quien legalmente le sustituya, dos concejales, el/la secretario/a de la Corporación y un técnico.

En el mismo acto podrá acordarse la designación de un suplente para cada uno de los integrantes de la Comisión.

Artículo 10.- Notificación del acuerdo de inicio.

El acuerdo de inicio se notificará al departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de diez días a contar del siguiente al de su adopción.

Artículo 11.- Recepción por la Diputación Foral de Bizkaia del acuerdo de inicio.

1.- El departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un mes a contar desde la recepción del acuerdo de inicio, resolverá sobre la instrucción del expediente.

2.- Si la línea límite definitiva estuviera ya establecida, la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del departamento competente, acordará el archivo del expediente, sin más trámite.

3.- En caso contrario, resolverá sobre la tramitación del expediente de deslinde, poniéndolo en conocimiento de los ayuntamientos interesados y requiriéndoles para que, en el plazo de dos meses a contar desde la recepción de esta resolución, procedan al

buruzko desadostasunak konpondu behar direnean.

2.- Honako hauek dira mugak zedarrizteko jarduerak: muga-lerroak lekuan bertan zehaztea, lerro horiek egitea, aktak eta aipamenak izapidetzea eta mugak ezartzeko beharrezkoak diren administrazio-egintza guztiak egitea.

8. artikulua.- Mugak zedarrizteko eskubidea

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek eskumena dute beren udalerriak zedarritu eta mugarizteko zerikusia duten gaietan, foru arau honetan eta foru arau honen osagarri diren xedapenetan aurrez ikusitako eran eta baldintzetan.

2.- Mugakide diren udalerrien arteko mugak zedarriztea preskribaezina da; jarduera hori egin ahal izateko, ukitutako udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari egin behar zaie zitzazioa.

2. ATALA.- PROZEDURA

9. artikulua.- Prozedura hastea

Udal interesduneko osoko bilkuraren erabaki bidez hasiko da mugak zedarrizteko prozedura. Zinegotzien gehiengo osoz hartuko da erabakia; erabaki horretan, mugak zedarriztearen arrazoia eta helburua adieraziko dira, bai eta ukitutako udalerrien zerrenda ere. Erabakian, era berean, batzorde bat izendatuko da, kide hauek izango dituen: alkatea edo haren legezko ordezkoa, bi zinegotzi, korporazioko idazkaria eta teknikari bat.

Egintza berean, batzordekideen ordezkoko ere izendatu ahal izango dira.

10. artikulua.- Prozedura hasteko erabakia jakinaraztea

Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari jakinaraziko zaio prozedura hasteko erabakia; horretarako, hamar eguneko epea egongo da, erabakia hartu eta biharamunetik hasita.

11. artikulua.- Foru Aldundiak prozedura hasteko erabakia jasotzea

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak emango du espedientearen instrukzioari buruzko ebazpena; horretarako, hilabeteko epea izango du, prozedura hasteko erabakia jasotzen denetik hasita.

2.- Behin betiko muga-lerroa ezarrita badago, Bizkaiko Foru Aldundiak, sail eskudunak proposamena eginda, espediente artxibatzea erabakiko du, beste izapidetik gabe.

3.- Hala ez bada, mugak zedarrizteko espediente izapidetzeari buruzko ebazpena emango du; udal interesdunei jakinaraziko die ebazpena, eta eskatuko die batzorde bat eratu dezatela. Batzorde hori eratzeko, bi hilabeteko epea izango dute, ebazpena jasotzen

nombramiento, por acuerdo de los Plenos respectivos adoptados por la mayoría absoluta de sus miembros, de una Comisión cuya composición será igual a la regulada en el artículo 9, acuerdo que se deberá remitir al departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de diez días a contar desde su adopción.

4.- En la misma resolución designará uno o varios técnicos competentes, titulares y suplentes en el mismo número, para que acudan en representación de la Diputación Foral de Bizkaia a todos los actos de las operaciones de deslinde.

5.- Recibidos los acuerdos o transcurrido el plazo señalado para ello, el departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia señalará fecha, hora y lugar del inicio de las operaciones de deslinde, emplazando a los ayuntamientos para que comparezcan, a través de las Comisiones nombradas, con el apercibimiento de que, la ausencia de alguna de ellas no impedirá la realización de las operaciones de deslinde y que la inasistencia de todas las comisiones motivará el archivo del expediente.

Artículo 12.- Efectos de la falta de constitución de la comisión de deslinde

1.- Si llegada la fecha señalada para el inicio de las operaciones de deslinde alguno de los ayuntamientos interesados no hubiera nombrado la comisión de deslinde, o habiéndolo hecho no lo hubiera notificado, continuarán dichas operaciones con la comisión o comisiones constituidas cuya composición se hubiera notificado al Departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia

2.- Salvo fuerza mayor, en ningún caso se retrotraerán las actuaciones a aquellos trámites en los que no haya participado alguna comisión.

3.- Se entenderá por fuerza mayor a los efectos de esta Norma Foral, toda situación o acontecimiento imprevisible y excepcional, independiente de la voluntad de las partes, que impida a cualquiera de ellas llevar a cabo alguna de sus obligaciones, siempre que esa situación o acontecimiento no fuera imputable a una falta o negligencia de una de ellas y que no pudiera haberse evitado aplicando la mayor diligencia posible.

Artículo 13.- Efectos de la incomparecencia a las operaciones de deslinde.

1.- La incomparecencia de cualquiera de las comisiones a la realización de las operaciones de deslinde debidamente convocadas, no impedirá su desarrollo.

2.- Cuando ninguna de las comisiones comparezca en cualquiera de las operaciones de deslinde, la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del departamento competente, procederá al archivo del expediente sin más trámite.

dueren egunetik hasita. Udaletako osoko bilkuretako kideen gehiengo osoaren erabaki bidez eratuko da batzordea, eta 9. artikuluan araututako batzordearen osatura bera izango du batzorde horrek. Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari bidaliko zaio erabakia; horretarako, hamar eguneko epea egongo da, erabakia hartzen denetik.

4.- Ebazpen horretan, teknikari gaitu bat edo batzuk izendatuko ditu (titularrak zein ordezkioak, kopuru berean), Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean joan daitezen mugak zedarrizteko jarduera guztietara.

5.- Erabakiak jasota edo erabakiak jasotzeko epea igarota, Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak adieraziko du zein egunetan, ordutan eta lekutan hasiko diren mugak zedarrizteko jarduerak, eta udalak epatuko ditu jarduera horietara ager daitezen izendatutako batzordeen bitartez. Horrez gainera, udalei ohartaraziko zaie ezen haietariko bat ez agertzeak ez duela eragotziko mugak zedarrizteko jarduerak egitea eta batzorderik ez egoteak espedientea artxibatzea ekarriko duela.

12. artikulua.- Mugak zedarrizteko batzordea ez eratzearen ondorioak.

1.- Mugak zedarrizteko jarduerak hasi behar diren egunerako udal interesdunen batek ez badu izendatu mugak zedarrizteko batzordea, edo izendatuta ere ez badu izendapen hori jakinarazi, jarduera horiek aurrera jarraituko dute eratuta dauden eta beren osatura Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari jakinarazi dioten batzordeekin.

2.- Ezinbesteko kasua ez bada, jarduerak ez dira inolara atzera eramango batzorderen batek parte hartu ez duen izapide batera.

3.- Foru arau honen ondorioetarako, hauek dira ezinbesteko kasuak: ustekabeko eta salbuespenezko egoerak edo gertaerak, alderdien borondatek kanpokoak direnak eta alderdietako edozeini bere betebeharrak egitea eragozten diotenak, betiere egoera edo gertaera horiek alderdi horien hutsegite edo arduragabekeriaren ondoriozkoak ez badira eta aukerarik egon ez bada ardura handiagoz jokaturik egoera edo gertaera horiek saihesteko.

13. artikulua.- Mugak zedarrizteko jardueretara ez agertzearen ondorioak

1.- Behar bezala deituta dagoen batzorde bat mugak zedarrizteko jardueretara ez agertzeak ez du eragotziko jarduera horiek egitea.

2.- Mugak zedarrizteko jardueretara ezin batzorde agertzen ez bada, Bizkaiko Foru Aldundiak, sail eskudunak proposamena eginda, artxibatu egingo du espedientea, beste izapiderik egin gabe.

Artículo 14.- Realización del deslinde

1.- Las operaciones de deslinde se llevarán a cabo en cuantas comparecencias resulten necesarias por las comisiones nombradas por los respectivos ayuntamientos y los técnicos competentes designados por la Diputación Foral.

Asimismo, podrán asistir por cada municipio hasta un máximo de dos personas conocedoras del lugar de localización de los mojones y señales divisorias, así como las personas propietarias de los terrenos donde tenga lugar el deslinde.

2.- Los/las secretarios/as, los técnicos municipales y los técnicos nombrados por el departamento foral competente tendrán voz pero no voto en todas las reuniones de la comisión.

3.- Las Comisiones podrán reunirse en la sede de alguno de los ayuntamientos afectados, sin que sea precisa la realización material del deslinde sobre el terreno siempre que se den las siguientes circunstancias:

- a) Que dispongan de cartografía o medios de representación gráfica que permitan identificar sin duda alguna el territorio a deslindar.
- b) Que pueda señalarse de un modo incontrovertible, sobre la cartografía incorporada al expediente, los puntos por donde deba discurrir la línea límite jurisdiccional y los que deban servir para situar los hitos o mojones.

4.- Las convocatorias para las sucesivas reuniones se practicarán por diligencia en el acta correspondiente a cada una de ellas.

Los vocales que hubieren dejado de asistir por cualquier causa, serán emplazados por notificación remitida por el órgano que los designó.

5.- De cada reunión se levantará un acta en la que deberán constar, al menos, las siguientes cuestiones:

- a) Fecha, hora y lugar
- b) Comisiones y personas asistentes.
- c) Líneas sobre las que se está o no de acuerdo.
- d) Fecha, hora y lugar para la siguiente reunión, si la hubiere.
- e) Cualquier otra circunstancia relevante para la mejor resolución del expediente.

6.- Las actas serán levantadas:

- a) Por el/la secretario/a municipal del ayuntamiento que ha iniciado el expediente.

14. artikulua.- Zedarritzea gauzatzea

1.- Udalek izendatutako batzordeek eta Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako teknikariek egingo dituzte mugak zedarritzeko jarduerak; horretarako, beharrezkoak diren beste agerraldi egingo dira.

Era berean, mugarren eta mugak bereizteko seinaleen kokapena non dagoen dakiten pertsona batzuk agertu ahal izango dira jardueretara, udal bakoitzeko 2 gehienez, eta, era berean, zedarritzea gertatzen den lurren jabeak.

2.- Batzordearen bileretan, idazkariek, udal teknikariek eta foru sail eskudunak izendatutako teknikariek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

3.- Ukitutako udalen baten egoitzan bildu ahal izango dira batzordeak, zedarritzearen gauzatze materiala lekuan bertan egin beharrik gabe; horretarako, honako inguruabar hauek gertatu behar dira:

- a) Zedarritu behar den lurraldea zalantza barik identifikatzeko kartografia edo errepresentazio grafikoko bideak edukitzea.
- b) Espedienteari erantsitako kartografian inolako zalantza barik seinalatu ahal izatea nondik joan behar duen muga-lerro jurisdikzionalak eta zein puntutan ezarri behar diren bidarriak edo mugarriak.

4.- Hurrengo bileretarako deialdiak eginbidez egingo dira, bilera bakoitzari dagokion aktan.

Edozein arrazoi dela-eta bilera batera joan ez diren kideak epatzeko, jakinarazpena bidaliko die izendatu zituen organoak.

5.- Bilera bakoitzaren akta egingo da; aktan, gutxienez ere, datu hauek jasoko dira:

- a) Eguna, ordua eta lekua.
- b) Bertaratutako batzordeak eta pertsonak.
- c) Zein lerrotan dagoen adostasuna eta zeinetan ez.
- d) Hurrengo bilerarik badago, bilera horren eguna, ordua eta lekua.
- e) Espedientea hobeto ebazteko garrantzia duen beste edozein alderdi.

6.- Honako hauek arduratuko dira aktak jasotzeaz:

- a) Espedientea hasi duen udaleko idazkaria.

- b) En su ausencia, por el/la secretario/a del otro ayuntamiento interesado y, si fueran varios, la prelación se determinará atendiendo al orden alfabético de la denominación de cada ayuntamiento.
- c) Si estuvieran ausentes todos los anteriores, por el técnico nombrado por la Diputación Foral de Bizkaia y, si fueran varios, éste será determinado por el orden alfabético de sus apellidos.

Artículo 15.- Finalización de las operaciones de deslinde.

1.- Finalizadas las operaciones de deslinde, si hubiese conformidad en la fijación de la línea límite, las comisiones levantarán acta conjunta que lo acredite.

El acta conjunta será levantada siguiendo la prelación establecida en el artículo anterior.

El acta habrá de contener, como mínimo:

- a) Fecha, hora y lugar
- b) Comisiones y personas asistentes.
- c) Listado provisional de coordenadas.
- d) Breve descripción de los mojones y su entorno, así como la unión entre ellos.
- e) Cualquier otra circunstancia relevante para la mejor resolución del expediente.

Del acta conjunta firmada por todas las personas que forman parte de las comisiones y por los técnicos designados por el departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia, y de cuantos documentos cartográficos y medios de representación gráfica lo acompañaren, habrá de hacerse tantos ejemplares como entidades públicas se hallen representadas y su libramiento se realizará en el mismo acto para cada una de las representaciones. A las ausentes se les trasladará por notificación al órgano que los hubiera designado y en cuya representación debían acudir.

2.- Cuando existan discrepancias entre las comisiones de deslinde respectivas en cuanto al modo de determinar el lugar por donde deba pasar la línea límite jurisdiccional o en el que hayan de colocarse los hitos o mojones, cada comisión levantará acta por separado en la que hará constar los puntos en los que hay acuerdo, los puntos de desacuerdo con todos los datos, antecedentes y detalles que estimen necesarios para justificar su apreciación.

Asimismo los técnicos designados por el departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia deberán elaborar un acta con igual contenido.

Artículo 16.- Aprobación de las actas

1.- El acta final de las operaciones de deslinde, bien sea conjunta o bien separada, se elevará a los ayuntamientos respectivos para su aprobación por acuerdo del Pleno por mayoría absoluta del número

b) Aurrekoa ez badago, beste udal interesdunaren idazkaria, eta, udal batzuk badira, udal bakoitzaren izenaren hurrenkera alfabetikoaren arabera ezarriko da lehentasuna.

c) Aurreko guztiak ez badaude, Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako teknikaria, eta, teknikari batzuk badira, teknikarion abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera ezarriko da lehentasuna.

15. artikulua.- Mugak zedarrizteko jarduerak amaitzea

1.- Mugak zedarrizteko jarduerak amaituta muga-lerroa ezartzeko adostasuna badago, adostasun hori egiaztatzen duen akta bateratua egingo dute batzordeak.

Akta bateratu hori jasotzeko, aurreko artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio.

Akta horretan, gutxienez ere hauek jasoko dira:

- a) Eguna, ordua eta lekua.
- b) Bertaraturako batzordeak eta pertsonak.
- c) Koordenatuen behin-behineko zerrenda.
- d) Mugarrien eta haien inguruaren azalpen laburra, bai eta mugarrien arteko loturarena ere.
- e) Espedientea hobeto ebazteko garrantzia duen beste edozein alderdi.

Ordezkatuta dauden erakunde publiko beste ale egin beharko dira agiri hauek: batzordeetako ordezkari guztiek eta Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak izendatutako teknikari guztiek sinatutako akta bateratutik eta hari erantsitako agiri kartografikoetatik eta errepresentazio grafikoaren bideetatik; agiriok egintza berean emango zaizkie ordezkari guztiei. Bertaratu ez direnei ere helaraziko zaizkie dokumentuak, pertsona horiek izendatu zituen eta ordezkatu behar zuten organoari jakinarazpena eginga.

2.- Mugak zedarrizteko batzordeen arteko desadostasunak daudenean zehaztu ahal izateko nondik joan behar duen muga-lerro jurisdikzionalak edo non kokatu behar diren bidarriak edo mugarriak, batzorde bakoitzak bere akta egingo du. Akta horretan hauek jasoko ditu batzordeak: adostasun-puntuak zein desadostasun-puntuak eta bere iritzia justifikatzeko datuak, aurrekariak eta nondik norakoak.

Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak izendatutako teknikariek eduki bera duen beste akta bat egin beharko dute.

16. artikulua.- Aktak onartzea

1.- Mugak zedarrizteko jardueren azken akta —dela bateratua dela bereizia— udalei aurkeztuko zaie, osoko bilkurako legeko kideen gehiengo osoz onar dezaten. Erabaki hori hartzeko bi hilabeteko epea izango dute,

legal de miembros, acuerdo que deberá adoptarse en el plazo de dos meses a contar desde la finalización de las operaciones de deslinde.

2.- Si el pleno de algún ayuntamiento no estuviera de acuerdo, a pesar de haberse suscrito el acta conjunta, con la totalidad o alguno de los apartados recogidos en dicha acta, deberá precisar los puntos en los que existe discrepancia.

Artículo 17.- Remisión a la Diputación Foral de Bizkaia

1.- Los acuerdos de los Plenos deberán remitirse al departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia en el plazo de diez días a contar del siguiente a la adopción del acuerdo.

2.- Si en el plazo señalado no se hubiera recibido alguno de los acuerdos, el departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia requerirá al Ayuntamiento para que lo presente en el plazo de un mes a contar del siguiente al de la recepción del requerimiento

3.- Si, a pesar del requerimiento, ninguno de los ayuntamientos interesados remitiera el acuerdo del Pleno, la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del departamento competente, procederá al archivo del expediente sin más trámite.

Artículo 18.- Trámite de audiencia

1.- Recibido el acuerdo del Pleno y demás documentación pertinente, el departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia procederá a dar trámite de audiencia a todos los ayuntamientos interesados por un plazo de un mes para que puedan presentar alegaciones, documentos y justificaciones que estimen oportunas.

2.- Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los ayuntamientos interesados

Artículo 19.- Propuesta de resolución

Las alegaciones presentadas serán informadas por la unidad administrativa correspondiente del departamento competente de la Diputación Foral de Bizkaia, procediendo, seguidamente, a elaborar la correspondiente propuesta de resolución.

Artículo 20.- Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de la Diputación Foral de Bizkaia.

El departamento competente de la Diputación Foral remitirá el expediente a la Comisión Jurídica Asesora de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con la propuesta de resolución, a los efectos de emisión del preceptivo dictamen.

mugak zedarritzeko jarduerak amaitzen direnetik.

2.- Nahiz eta akta bateratua sinatuta egon, udal bateko osoko bilkura ados ez badago akta osoarekin edo aktan jasotako punturen batekin, osoko bilkura horrek zehaztu beharko du zein puntu ez datorren bat.

17. artikulua.- Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari bidaliko zaizkio osoko bilkuren erabakiak; horretarako, hamar eguneko epea egongo da, erabakia hartu eta biharamunetik hasita.

2.- Adierazitako epe horretan erabakiren bat jaso ez bada, Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunak errekerimendua egingo dio udalari, aurkez dezan; horretarako, hilabeteko epea izango du errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

3.- Errekerimendua eginda ere, ezin udal interesdunek osoko bilkuraren erabakia bidaltzen ez badu, Bizkaiko Foru Aldundiak, sail eskudunak proposamena eginda, espediente artxibatu egingo du, beste izapiderik egin gabe.

18. artikulua.- Entzunaldiaren izapidea

1.- Osoko bilkuraren erabakia eta gainerako dokumentazioa jasota, Foru Aldundiko sail eskudunak entzunaldia emango die udal interesdun guztiei; ondorioz, hilabeteko epea izango dute egokitzat jotzen dituzten alegazio, agiri eta justifikazioak aurkezteko.

2.- Kasu batzuetan, ez da egongo entzunaldiaren izapidea egin beharrik: udal interesdunen alegazio eta probaz gainera, prozeduran beste inoren egitate edo alegaziorik ez denean edo ebazpenean kontuan hartzen ez denean.

19. artikulua.- Ebazpen-proposamena

Foru Aldundiko sail eskuduneko dagokion administrazio-unitateak emango du aurkeztutako alegazioei buruzko txostena, eta, ondoren, dagokion ebazpen-proposamena egingo du.

20. artikulua.- Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Batzorde Aholkulariaren irizpena

Foru Aldundiko sail eskudunak Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Batzorde Aholkulariari igorriko dio espediente, ebazpen-proposamenarekin batera, nahitaezko irizpena eman dezan.

El dictamen será elaborado en el improrrogable plazo de un mes.

Artículo 21.- Resolución

A la vista del dictamen de la Comisión Jurídica Asesora, la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del departamento competente, dictará resolución motivada en el plazo de un mes, a contar del siguiente a la recepción del dictamen, notificándola en el plazo de diez días desde su adopción a los ayuntamientos interesados, a las Administraciones del Estado y de la Comunidad Autónoma, disponiendo su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y procediendo a su inscripción en el Registro de Entidades Locales correspondiente.

Artículo 22.- Amojonamiento

1.- En el plazo de un mes desde la notificación de la resolución, los servicios técnicos de la Diputación procederán, en su caso, a fijar el lugar de colocación de los hitos o mojones definitivos, corriendo a cargo de los ayuntamientos la monumentalización de los mismos

2.- Finalizado el procedimiento de deslinde, las comisiones intervinientes procederán a la colocación de hitos o mojones que señalen los límites de los términos municipales.

3.- Colocados los mojones, las personas representantes de la Diputación Foral levantarán informe en el que se fijarán definitivamente las coordenadas que reflejen de forma precisa el trazado de la línea límite, en el que se incluirán la ubicación de los mojones y el desarrollo de las líneas entre ellos.

Artículo 23.- Representación gráfica

1.- El departamento competente de la Diputación Foral reflejará, con carácter provisional, en su cartografía oficial la representación gráfica del límite municipal establecido en base a la resolución y la documentación que la acompaña.

